# Bidebieta



## Goi mailako eskubaloia

Asteburu honetan ABF Emakumezkoen Eskubaloi Txapelketa jokatuko da Bidebietako kiroldegian. Joan den denboraldiko Espainiako Liga Txapelketako lehen lau taldeek neurtuko dituzte indarrak. Larunbatean, Bera-Bera etxeko taldeak Ositoren kontra jokatuko du 16.45ean. Jarraian, Ferrobus valentziarra eta Alacanteko Elda ariko dira nor baino nor. Partida horietako irabazleek txapelketaren finala jokatuko dute igandean 12.00etan.

## Bazen garaia!

Argazkian ikus daitekeenez, Jon Karla Gerra kalean, Bidebieta Ikastetxe Publikoaren eta Gazte Txokoren parean, autoak ez aparkatzeko pibotak jarri dituzte. Azken urteetan ibilgailu ugari aparkatu izan dira bertan eta belarra eta zuhaitzak kaltetu dituzte.



## Danborrada prestatzeko garaia

Bidebietako danborradaren entseguekin hasiko da laster, urtarrilaren 7an hain zuzen ere. Izena eman nahi duenak Txiki tabernara edo 943400971 telefonora deitu besterik ez du.

## Zorionak San Luis!

San Luis ikastetxea 90. urteurrena ospatzen ari da eta ikasturte honetan zenbait ekimen egiten ari dira. Joan den ostiralean, hilak 13, Ilunbe abesbatzaren kontzertua egin zen. Bestalde, martxoaren 17tik 28ra bitartean Intxaurrondoko Sukaldaritza Euskal Elkarteak, ikasleentzat eta gurasoentzat, sukaldaritza ikastaroa emango du. Azkenik, martxoaren 29an, meza egingo da auzoko San Frantzisko Jabier elizan, eta ondoren, herri bazkaria. Horrez gain, urtemugaren haritik ikastetxeak egindako egutegi berezia hiru eurotan eskura daiteke ikastetxean bertan.

EL TURISTA
KIROL ETA BIDAIETARAKO ARTIKULUAK
LEGAZPI, 6 • Tel.: 943 42 77 46

LAISTER®
SPORTCLINIC
Urte osoan deskontuak!!!
Zure denda espezialista, marka onenekin
Zure zapaltzeko era kontuan hartuta, zapatilarik egokiena gomendatuko dizugu.
Elkano 6 • Tel. eta faxa: 943 43.07.04

IÑAUSTI
JANGELA ZABALAK ETA ENPRESA BILERAK EGITEKO ARETOAK
GOIZEKO 7ETATIK IREKITA
GOSARIAK, PINTXOAK, OTARTEKOAK.
EGUNEROKO MENUA: (10 plater aukeran) 1.200 PEZETA
MENU BEREZIAK: 3.000 PEZETA
APARKALEKU ZABALA.
LARUNBATETAN EGUN ERDIZ IREKITA.
ZUATZU KALEA 4
(EASO ERAIKUNTZA -2 ETA 3 LOKALAK)
20018 DONOSTIA
TELEFONOA: 943 313 933



ERLOJU TAILERRA
BITXIEN TAILERRA
ERLOJUTEGIA
BITXITEGIA
SEIKO - LOTUS
FESTINA - CITIZEN
PULSAR - CASIO
SWATCH - FLIK FLAK
CALYPSO
MIKEL

Sukalde altzariak
EGURRA
Donostia
Erakusketa: San Frantzisko 12 • Tel.: 943 281098 • DONOSTIA
Fabrikazioa: Sukalde Altzariak • IBARRA • Tel.: 943 691273 • ZIZURKIL